

Parte Zaharra

Altza

Gay festa Trinitate plazan

Hilaren 16an, Gehitu gay eta lesbianen elkarteak antolatuta, Elkartasun Jaia egingo da Parte Zaharreko Trinitate plazan.

Jaia elkartekoen ekainaren 28aren inguruan egiten dituzten jardueren aurrerakaria izango da. "Homosexualitatea kalera atera nahi dugu, gure egunerokoan dagoen zerbait dela adierazteko. Finen, gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatu nahi ditugu", jakinarari digu Davidek Gehitu elkarteko kideak.

Arratsaldeko 18.00etan hasiko da jaia Ricki Lopez cabaret antzerkilariaren emanaldiarekin. Gaueko 22.00etan, berriz, Javier Alvarez musikariak kontzertua eskainiko du. Elkartasun Jaia donostiar guztiei begira antolatu da. "Ez da elkartekoei zuzendutako jaia,

donostiar guztiei zuzendutakoa baizik. Jendeak homosexualitatea normaltasun osoz tratatzea nahi dugu", adierazi digu Davidek.



Urtero ekainean kultur jardunaldiak antolatzen ditu Gehituk, Gay Harrotasunaren egunaren haritik.

Altzako Gaztetxea hustu dute

Maiatzaren 26an Altzako gazteek Herrerako topogeltokiko etxea okupatu zuten bertan gaztetxea egiteko. Etxea urtebeteko epean Herreran okupatutako hirugarren gaztetxea da. Duela urtebete pasatxo Rutilita izeneko etxea okupatu zen. Hilabete gutxi batzuen ondoren, ordea, Altzako gazteak Rutilitatik kanporatu zituzten. Handik hilabete batzuetara, "Sport 2134" izeneko etxean sartu ziren gazteak eta beste behin ere kanporatu zituzten. Oraingoan gaztetxean luze irauteko itxaropena zuten gazteek. Itxaropenak itxaropena, astebete besterik ez dute iraun



Gaztetxe berria auzoan urtebetean okupatu den hirugarrena da

bertan, izan ere, joan den ostiralean kale gorrian geratu ziren, berriz ere. Hori guztia dela eta, datozen egunetan kanporaketa salatzeke hainbat ekintza iragarri dituzte Altzako gazteek.

Astebete besterik ez dute iraun gazteek gaztetxe berrian

Dr. Beobide

Medikua, Odontologaria

Odontologia estetikoak

(943) 276227

Ametzagaina 49, Behea
20012 DONOSTIA

OIHALDENDA

El telar

Alfonso VIII, 8
Tel.: (943) 42 42 10

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: (943) 420607

Matia, 44 • Tel.: 943 31 06 41

LOREDENDA

HUNTZ